

MUNGIA / Irakurtzen irabaziz

Mungiak irabazi du, Bizi letrako lehen txapelketaren sari nagusia.

Liburutegiak kalera atera eta irakurzaletasuna sustatzeko herrien arteko maratoia Mungia ekainaren 30ean heldu zen, jaien egitarauaren barruan. Parte hartzea oso altua izan zen eta guztira 20,1 kilometro bete ziren herrian, beste inon baino gehiago puntuazioaren arabera. Bizikletaren motorra bultzatzeko erregai bakarra irakurketa izanik, adin guztietako herritarrek hartu zuten parte.

Bizikleta egokitu bat 15 egunetan zehar Euskal Herriko 27 herritan zehar ibili zen maratoi hau sustatzen. Bizikleta gainean bi pertsona baino ezin izan ziren joan elkarrekin. Parte-hartzaileak bidaiari gisa joan ziren, pedicab motako bizikletaren atzeko aldean eserita eta liburu zein komikia eskuan izanda, pedalei eragingo dien beste pertsona batek gidatuta aurrekaldean. 4070 pertsonen partaidetza eta 570 kilometro lortu ziren guztira Euskal herri ezberdinetan eta mungiarrek izan ziren kilometro gehien burutu zituztenak egun bakarrean, lehiaketaren neurtzeko sistemaren arabera.

Herritarrek, bizikletan igo eta boz-goran irakurri behar zuten gidariak pedalei eragiten hasteko. 'Jendearen erantzuna oso ona izan zen eta bizikleta ez zen gelditu une baten ere ez Mungian. Oso eguraldi ona izan genuen eta jende asko zebilen kalean', diote udal liburutegiiko arduradunek.

Adin guztietako herritarrek aritu ziren Mungia irakurketa saio berezian. 'Norberak nahi zuena erabili zitekeen eta batzuk etxetik ekarritako liburuak irakurri zituzten, esaterako. Guk ere eraman genituen liburu mota ezberdinak, adin ezberdinei egokituak eta euskeraz zein erdaraz'. Adin guztietako herritarrek aritu izan ziren pedalei eragiteko asmotan, 'bost urtekoak izan ziren, esaterako, euren erritmora irakurtzen, baina parte hartzen. Baita 80 urtetik gorakoak ere. Koadrila gazte ezberdinen inplikazioa ikusi zen eta kolak ere izan ziren. Liburutegiagatik egin behar zutela esanez herritarrek erantzun zuten'. Liburu ezberdinak zozkeatu zituen denen artean, bukaeran, eskerrak emanez.

Beroa eta eguzkia lagun izan zuten mungiarrek egun horretan. 'Hasieran Foruen plazaren inguruan antolatu zen ibilbidea eta handik jende asko pasatu zen. Geroago, beroak jota, ibilbide freskoago bat bilatu genuen eta Torrebillela parkera mugitu ginen. Han gerizpe azpian, buelta laburrak egin behar izan ziren eta jende gehiago irakurtzen'.

Saria, irakurketa bultzatzeko ekintza berrietan isladatuko da. 'Oraindik ez dakigu oso ondo zer egingo den baina bai liburutegia sustatzeko aktibitateak egin ahal izango direla, programa berezi baten bitartez. Oso ondo etorriko zaigu, batez ere krisialdi garai honetan', diote udal liburutegiko arduradunek. Ekimenaren helburua irakurketaren aldeko zaletasuna era entretenigarrian sustatzea da. Herritarren atxikimendu handienari esker puntu gehien batzean, irabazleek, 2.000 euroan baloratutako irakurketa sustatzeko programa bat jasoko dute.

Irakurketa ibiltariko kanpaina hau Atarte kultur enpresak antolatu du eta Euskadiko Liburutegien Sistema Nazionalak finantzatu du. Jardueran, Euskadiko 27 udalerritako hogeita hamar liburutegik hartu dute parte, elkarrekin 365 kilometro egiteko ardurarekin pedicab motako bizikleta baten gainean. Guztira, aurten 570 kilometro lortu dira azkenean. Liburu, komiki edo aldizkari ugariren artean aukeratutako irakurketa egin zen.